

12. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Otsaila



Tokiko eta eskualdeko agintarien eginkizuna eta eragina Europar Batasunean

• Aurkezpena

Eurobarometroa Europako Batzordeak iritzi publikoa aztertzeko darabilen tresna da. Eurobarometroaren xedea politiken prestakuntzan, erabakietan eta ebaluazioan laguntzea da. Oraingoan Europako biztanleei galdeketa berezia egin zaie tokiko eta eskualdeko agintariek Europar Batasunean duten eginkizuna eta eraginari buruz duten iritzia ezagutzeko.

Galdeketa emaitzak 2009ko martxoaren 3an argitaratu ziren eta alderdi hauek jasotzen ditu nagusiki:

- Administrazio publikoaren maila desberdinen eragina herritarren bizi-kalitatean.
- Herritarrek administrazio publikoekiko duten konfiantza.
- Tokiko eta eskualdeko agintarien partaidetza Europar Batasuneko politikan.
- Europako erakundeetan herritarrek ordezkatzeko administrazio egokiena.

Landa-lana 2008ko urriaren 6a eta azaroaren 6a artean garatu zen Europar Batasuneko herri-tartasuna duten 15 urtetik gorako herritarren artean; guztira 27.000 galdeketa egin ziren.



EUROBAROMETER

http://ec.europa.eu/public_opinion/index_en.htm



Hemen, emaitza nagusiak aurkezten dira eta, bestalde, baita beste iturri batetik jasotako Gipuzkoako herritarren Europako administrazioari buruzko iritzia ere.

12. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Otsaila




- Tokiko eta eskualdeko agintariak ez dira behar bezala kontuan hartzen komunitateko politiketan**

Europako biztanleen gehiengoak uste du tokiko eta eskualdeko agintariak ez direla behar bezala kontuan hartzen Europar Batasuneko politiken formulazio prozesuetan.

Biztanleen % 59 iritzi horretakoa da eta % 19k soilik dio agintariei behar bezala kontsultatzen zaiela erabakiak hartzerakoan.

Proporzio esanguratsuak, % 22, ez du tokiko eta eskualdeko agintarien egitekoa ezagutzen.

Question: QH2. In your opinion, are regional or local public authorities sufficiently or not taken into account when deciding policies in the European Union?



Kide diren 27 estatuetao herritarrek, Zipre salbu, batasunean tokiko eta eskualdeko partaidetza ez dela nahikoa aldarrikatzen dute.

Grezian, Eslovenian, Frantzian eta Finlandian aipaturako ehunekoa erantzun guztien % 75ekoa da.

12. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Otsaila




• Tokiko eta eskualdeko mailak herritarren bizi-baldintzetan duen eragina esanguratsua da

Herritarren % 43k dio estatuko agintariek eragiten dutela gehien bizi-baldintzetan eta ehuneko horretatik ez oso urrun kokatzen dira tokiko eta eskualdeko agintariak.

Hori horrela, herritarren % 38rentzako agintari hurbileneakoak dira bizi-baldintzei gehien lotuta-koak. Herritarren %9k soilik esleitzen diote kalifikazio hori Europako agintariei.

Question: QH1. Selon vous, parmi les différents niveaux d'autorités publiques, lequel a le plus d'influence sur vos conditions de vie : le niveau européen, le niveau national ou le niveau régional ou local ?



Kide diren hamar estatutan herritarren gehiengoak dio estatuko agintariak direla eraginkorrenak eta horien artean lau herrialde txiki nabarmentzen dira: Danimarka, Luxenburgo, Malta eta Holanda, % 60 baino gehiagoko erantzun-tasarekin.

Tokiko eta eskualdeko agintarien garrantzia Txekiar Errepublikan, Estonian, Finlandian eta Suedian nabarmentzen da, erantzunen erdia ingururekin.

Bestalde, kide diren hiru estatutan —Malta, Luxenburgo eta Portugal— tokiko eta eskualdeko agintarien eragina oso murrizta da (erantzunen % 15 inguru).

12. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Otsaila



- Erakundeekiko konfiantza mugatua den marko orokorrean, tokiko eta eskualdeko agintariek konfiantza gehiago eskaintzen dute

Herritarren erdiak adierazten du tokiko eta eskualdeko agintariek mesfidantza baino konfiantza gehiago eragiten dietela. Proportzio hori % 47koa da Europar Batasunean eta % 34koa estatuetan.

Tokiko eta eskualdeko agintariengan konfiantza (% 66 baino gehiago) gehien duten estatuen taldean herri nordikoak nabarmentzen dira: Finlandia, Danimarka, Suedia eta Austria. Beste muturrean, berriz, Italia, Lituania eta Bulgaria daude (% 33 baino gutxiagoko konfiantza).

QA12 I would like to ask you a question about how much trust you have in certain institutions. For each of the following institutions, please tell me if you tend to trust it or tend not to trust it.

Regional or local public authorities			National government			European Union		
	EU27	50%		EU27	34%		EU27	47%
	FI	72%		FI	68%		SK	70%
	DK	70%		NL	66%		EE	67%
	SE	68%		CY	65%		NL	64%
	AT	67%		DK	60%		RO	63%
	DE	65%		LU	60%		BE	61%
	NL	64%		SE	56%		DK	60%
	BE	63%		MT	50%		SI	60%
	FR	62%		AT	50%			
:	:	:	:	:	:	:	:	:
	SI	39%		CZ	20%		AT	42%
	RO	39%		PL	20%		IT	41%
	EL	34%		LT	16%		UK	25%
	BG	31%		HU	16%			
	LT	31%		LV	16%			
	IT	25%		BG	15%			

Hain zuzen ere, Europako herrialde garatuenetan eskaintzen du tokiko eta eskualdeko agintaritzak administrazio publikoko gainerako mailek baino konfiantza gehiago.

Zehatz esateko zortzi estatutan: Finlandia, Danimarka, Suedia, Austria, Alemania, Belgika, Frantzia eta Erresuma Batua. Europar Batasuneko azken bi zabalkuntzetan atxikitako Erdialdeko eta Ekialdeko Europako Herrialdeetan, aldiz, Europako administrazioa da herritarrengan konfiantza gehien sortzen duena.

12. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Otsaila




• Europako ordezkariak erakunde-maila desberdinek partekatzen dute

Estatuko ordezkariak egokiagozat jotzen da herritarren interesak Europan defendatzeko eta Europako politikek eguneroko bizitzan duten eragina azaltzeko.

Aitzitik, tokiko eta eskualdeko ordezkariak eta Europako Parlamentuko ordezkariak elkarrengandik gertu kokatzen dira. Hori horrela, herritarren ustez erakunde-maila desberdinen arteko jardura bateratua da egokiena.

QH3 Representatives of the different levels of public authorities, European level, national level and regional or local level, are all present in the European institutions. From the following political representatives, which ones are best placed...? %EU



Herritarren eguneroko bizitzan Europako politikek duten eraginari buruz tokiko eta eskualdeko ordezkariak emandako azalpenak Frantzia, Austria eta Polonia du presentzia gehien.

12. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Otsaila



• Gipuzkoako herritarren Europako administrazioari buruzko balioespena

Gipuzkoako herritarren % 30ek (Euskal soziometroa, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2008ko azaroa) Europako Batzordearen aldeko balioespena egin du, herritarren % 28k, berriz, ez dagoela kontent adierazi du eta “ez daki/ez du erantzun” taldearen portzentaia altua nabarmentzen da horien gaineratik. Azken horiek Europako Batzordearen jardura ezezaguna dutelako izan daiteke hori, neurri handian.

Aldeko eta kontrako jarreraren arteko aldea (1,1) Batasuneko herritarrei Europako administrazioak sortutako konfiantzari buruz iritzia galdetzen zaienean haiengandik jasotakoaren berdina da (aurreko ataletan azaldu den moduan).

Hala ere, Gipuzkoako herritarrek tokiko eta eskualdeko administrazioari buruz (Udala, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren arteko balioespenaren batez besteko gisa neurtuta) egindako balioespena Europako herritarrena baino askoz ere altuagoa da. Hori horrela, Europako eta estatuko administrazioari emandako balioespena baino askoz ere altuagoa da.

Bai Gipuzkoako herritarren aldetik, bai Europakoen aldetik, estatuko administrazioa da gutxien balioetsitakoa, nahiz eta Gipuzkoaren kasuan, iritzi hori ez den hain kontrakoa.

<i>Konfiantza/asetasuna administrazioekin (%)</i>	<i>Gipuzkoa</i>	<i>Europar Batasuna</i>
<i>Tokiko eta eskualdeko administrazioa</i>		
– Asetasuna/Konfiantza	62	50
– Asegabetasuna/Mesfidantza	26	44
– Ratioa	2,4	1,1
<i>Estatuko administrazioa</i>		
– Asetasuna/Konfiantza	40	34
– Asegabetasuna/Mesfidantza	44	61
– Ratioa	0,9	0,6
<i>Europako administrazioa</i>		
– Asetasuna/Konfiantza	30	47
– Asegabetasuna/Mesfidantza	28	41
– Ratioa	1,1	1,1